


Mendiaz gozatzeko

Oargik Mendi
Hamabostaldia
antolatu du
7tik 20ra ▶ 3



Harpidedunei banatua ▶ Larunbata ▶ 2005-11-05 ▶ III. urtea ▶ 729. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Magrebeko II. Astea prest du Irazki elkarteak

TOLOSA ▶ Hilaren 8tik 12ra era
guztietako ekitaldiak antolatu ditu
Tolosaldeko elkarte kulturantzak

HELBURUA ▶ Magrebeko
herrialdeetako ohiturak eta kultura
ezagutarazteko baliatu nahi dute ▶ 2

IBARRA ▶

Xabi Fernandez, Munduari Bira

Gaur izango da
lehen etapa ▶ 6

I. GARCIA



Afrikako gazteek beren etorkizuna eraikitzeko

TOLOSALDEA ▶ Maliko
Emmanuel Nestor
Kone apaiza
gonbidatu du Afrika
Elkartasuna-k ▶ 4

IBARRA ▶

Babarrun jatea, Hauspoak antolatuta

Bihar egingo dute ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu, finalera iristeko lehian

Billabonatarra eta larrauldarra lehen
finalerdian ariko dira bihar Hendaian ▶ 7

TOLOSA ▶

'Bide eginez' prozesua abiarazi du Batasunak

Herriz herri batzarrak
egingo ditu ▶ 3

ALEGIA ▶

San Joan kalean sartzeko baimena beharko dute autoek

Kalea oinezko bihurtzeko proiektua
prest du dagoeneko Udalak ▶ 5

GIZARTEA ▶

Magrebeko II. Astea antolatu du Irazkik hurrengo asterako

Hitzaldiak, proiektzioak, erakusketa... izango dira jardunaldi horien ardatz; hilaren 8an hasi, eta 12an bukatuko dira



Magrebeko herrialdeetako ohiturak eta kultura ezagutzeko aukera izango da jardunaldien bidez. I. ETXEBESTE

IRATXE ETXEBESTE

Irazki elkarte kulturantzak Tolosako Magrebeko II. Jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako. Hilaren 8an hasi eta 12a bitarte askotariko ekitaldiak izango dira herriko gune ezberdinetan: argazki erakusketa, hitzaldiak, proiektzioak, afaria, konzertua... Antolatzaileek deialdi zabala egin diete herriarrei ekintza horietan guztietan parte har dezaten.

Izan ere, «Tolosaldean bertan dauden kultura eta herri ezberdinetako lagunen arteko harremanak indartzea» da, besteak beste, Irazki elkarteak Magrebeko II. Jardunaldiekin lortu nahi duena. Halaxe adierazi diote HITZARI Saad Malek

eta Mohamed Hiamane elkarreko kideek: «Orain arte behintzat, etorkinen kopuru gehiena Magrebeko herrietakoa da, eta, beraz, aukera paregabea dugu jardunaldi horien bitartez magrebiarren jatorria eta kultura bertatik bertara ezagutzeko».

Iaz egin zituzten lehendabizikoz, eta haien aldean aurtengo jardunaldiek berezitasunik izan badutela esan dute antolatzaileek. «Aurtengo jardunaldiek kultur ikuspegi bat izateaz gain, salaketa egiteko ere balioko dute: Ceutan eta Melillan gertatzen ari dena salatze-ko, hain zuzen ere». Horretarako, *Ceuta eta Melilla: Iotsaren harresia* izeneko argazki erakusketa jarriko dute SOS Arrazakeriak elkartearen laguntza-

rekin. Kalean jarriko dituzte argazkiak datorren larunbatean.

Ekitaldi asko, larunbatean

Magrebeko jardunaldien baitan antolatu dituzten ekitaldi gehienak larunbatean izango dira. 11:00etatik aurrera askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango da Triangulo plazan: esate baterako, magrebeko ogi tradizionala nola egin irakatsiko diete haurrei; egurra, harria eta keramika erabiliz egindako artisautza tradizionalako postua jarriko dute, eta dastatze gastronomikoa egiteko aukera ere izango da. «Pintxo morunoak, tea eta zarzagiko ogia jan ahal izango dituzte herritarrek».

EGITARAUA ▶

Irazki elkarte kulturantzak Tolosako Magrebeko II. Jardunaldiak antolatu ditu datorren asterako herrialde arabiarretako ohitura, kultura eta gastronomia eskualdean gehiago ezagutzera emateko. Hauexek dira hurrengo asteartetik larunbatera bitartean herrian izango diren ekitaldiak, banan-banan zehaztuta:

HILAK 8. ASTEARTEA

19:30. *Mestizajea egungo bikoteetan: bikote mistoak* izeneko hitzaldia eskainiko dute Begoña Petarroman FARAPI aholkularitza enpresako antropologoak eta Dan Rodriguez Garcia Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak, Kultur Etxean.

HILAK 9. ASTEAZKENA

19:30. *Islama eta Mendebaldeko Europa: bizikidetzarako giltzak* hitzaldia eskainiko du Jordi Moreras CIDOB Fundazioko Bartzelonako arduradunak, Kultur Etxean.

HILAK 10. OSTEGUNA

19:30. *Kulturartekotasuna eta inmigrazioa Euskal Herrian* mahai-ingurua, Antonio Maria Labaien kultur etxean. Hizlari izango dira Khaled El Haddami Azraf berebere elkarteko kidea, Moulay Idriss El Manar elkarteko kidea eta Abdati Mohamed Abdeljail ATIS-Itzultzaile eta Interprete Sozialen Elkarteko kidea.

Egun horretan bertan afaria egingo dute Abastos plazan. Harira, couscous-a barazki eta haragiarekin eta tea eta pasta tradizionalak prestatuko dituzte antolatzaileek, eta bertara joan ahal izateko txartelak erosi behar dira alde aurretik. 12 eurotan izango dira salgai Tolosako Orbela, Iratxo, 66 eta Raku tabernetan eta Ibarako Zubiaurre tabernan. Afaloste-an kontzertua eta sabel dantza

HILAK 11. OSTIRALA

19:30. *Inmigrazio klandestinoa* izeneko proiektzioa eta solasaldia izango da Kultur Etxean.

HILAK 12. LARUNBATA

11:00. Askotariko ekitaldiak izango dira Triangulo plazan ordu horretatik aurrera: kalejira Afrikako folklorea zabaltzen duen Gnawa musika taldearekin, idazkera berebereko tailerra, henna tailerra, ogi tailerra, dastatze gastronomikoa, artisautza tradizionalako postua, haurrentzako ipuin kontaketa...
11:00etatik aurrera. Ceuta eta Melillako (Espainia) hesiari buruzko kale erakusketa.
19:00. *Ni, Mohamed* izeneko antzezlan eskainiko dute Zurriola Antzerki Eskolako kideek Aranburu Jauregian.
21:30. Afaria Abastos plazan. Harira, cous-cousa barazki eta haragiarekin, tea eta pasta tradizionalak.
Ondoren. Kontzertua Abastos plazan: Bartzelonako Cheb Mouguit taldea eta jarraian dantza talde baten emanaldia. Bi dantzarik sabel dantza saioa eskainiko dute.

ASTE OSOAN

Egunez. Magrebeko II. Jardunaldiek irauten duten bitartean, *Magreb-a: herri eta kamioen bidegurutzea* izeneko argazki erakusketa izango da ikusgai Antonio Maria Labaien kultur etxean, goizez eta arratsalde, ohiko ordutegietan.

saioa izango dira herritarren arteko giroa berotzeko.

Irazki elkarteko kideek diote gisa horretako ekimenekin «giza eskubideen urraketa oro ozenki salatzen» dutela, eta, era berean, «gizarte justu eta solidario baten alde benetako politikak aldarrikatzen» dituztela. Helburu horiek lortzeko bidean jarraituko dute lanean aurrerantzean ere elkarte kulturantzeko kideek.

hitza **txokoa** lagunen

Egin zaitez harpidedun!

▶ **45 €-ren TRUKE**, HITZA egunero jasotzeaz gain, **HAINBAT ABANTAILA** izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ **HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira.**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

POLITIKA ▶

‘Bide eginez’ barne eztabaida prozesua abiarazi du Batasunak

Bi egunetan egingo dituzte batzarrak herriz herri; Tolosan, hilaren 12an izango da horietako lehena, Kultur Etxean



Herenegun arratsaldean aurkeztu zuten *Bide eginez* barne eztabaida prozesua. HITZA

ERREDAKZIOA

«Batasuna prozesua burutu eta lau urte iragan diren honetan, *Bide eginez* barne eztabaida prozesua martxan jarri da Euskal Herri osoan, eta Tolosan ere bai, jakina. Hori dela eta, batzarrak antolatuko ditugu herriz herri». Gisa horretara egin zuten herenegun iluntzean Tolosako Kultur Etxean ezker abertzaleko hainbat lagunek prentsa aurreko agerraldia, aurrera begira egitekoa duten ekimenari buruzko azalpenak emateko.

«Landu nahi diren gaiak ugariak izanik, eta beharrezko patxadaz aztertzeak merezi duelako, bi batzarretan burutuko da herri bakoitzean eman beharreko prozesua». Tolosan, hilaren 12an izango da batzar horietako lehena. «Larunbat goizean antolatu dugu batzar hau, astean zehar denbora justuagoarekin ibiltzen garelako

eta presarik gabe jorratu nahi ditugulako gaiak. Izan ere, ahalik eta iritzi eta ekarpen gehien jaso nahi ditugu, guztion ekarpenek aberastuko baitute Batasunaren norabidea».

Azken urteotako balantze politikoa eta hemendik aurrera Batasunak defendituko duen ildo politikoa eztabaidatuko dituzte estreinako batzar horretan. «Euskal Herrian politikoki garai garrantzitsua bizi dugula entzuten dugu han eta hemen. Bat gatoz hausnarketa horrekin. Baina garai itxaropentsua baldin bada ere, ez dugu aurrean ditugun arriskuei ezikusiarrena egin nahi. Ardurara politikoz jokatu beharreko garaia da, beraz».

Datorren larunbatean bilduko dira lehendabizikoz *Bide eginez* barne eztabaida prozesuaren harira. 11:30ean hasiko da batzarra, Kultur Etxean.

«Bukatzeko, ez dugu agerraldi publiko hau azken Estatu hil-

ketaren biktima izan den Jose Angel Altzuguren *Kotto*-ren sendiari eta lagunei gure bersarkadarik samurrena eskaini gabe amaitu nahi. Hilketari honekin, gure herriaren alde lana egitearen prezioa zenbaterainokoa den ikusi dugu berri ere», zioten atzoko ekitaldira bildutakoek: «Azken bi urte eta erdian ez dela hildakorik esan dutenei, estatu politika bortitzak denboraldi honetan ezker abertzaleko bederatziti preso, senide eta errefuxiatu hil dituela gogorarazi behar diegu».

Tolosako Batasunak datozen egunetan antolatuko dituen ekimenetan parte hartzea animatu nahi dituzte herritarrek atzoko agerraldian izan zirenek. Eta deialdi zabala egin dute horretarako; alegia, «sakabanaketaren ardura dutenak mugiarazi dituzgun eta hildako gehiago izan ez dezagun».

KIROLA ▶

Oargiko Mendi hamabostaldia, abian

Hil honen 7tik 20ra bitarte askotariko ekitaldiak antolatu ditu elkarteak

N. LATABURU

Oargi mendi elkarteak hamabostaldia antolatu du, azaroaren 7an hasi eta 20ra bitarte. Bi aste hauetan zehar ekitaldi mordoak izango dituzte aurrera, guztiak ere mendiarekin zerikusia dutenak. Lehenengo astean, 7tik 13ra, mendiko materialarekin osatutako azoka egingo dute elkarteak bertan (Santa Maria kalean). Ordutegia ondokoa izango da: astelehenean ostiralera, 18:00etatik 21:00etara; larunbatean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta igandean, 16:00etatik 20:00etara. Material bilketa, berriaz, 20:00etatik 21:00etara egingo dute, astelehenean ostiralera.

Bigarren astean egunero dituzte ekitaldiak: astelehenean, 20:00etan, Jon Ander Goikoetxearen hitzaldia Lohtseko iogeararen inguruan. Asteartean, 20:00etan, Mikel Garaikoearen hitzaldia, mendian segurtasunez ibiltzearen gainean. Asteazkenean, 20:00etan, Karlos Galan espeologoa izango da hizlari. Ostegunetan, berriaz, Asier Izagirre Patagoniatik zehar eginiko ibilaldiari buruz ariko da, 20:00etan. Ostiralean, Angel Jose Martinez ariko da. Larunbatean, bi bisita izango dira; 18:30ean Teixus Barandiaran, eta Angel Navas, 20:00etan. Bukatzeko, igandean mendi irteera egingo dute Erniora, 09:00etan, Oargin egingo duten bazkariarekin amaituko dutena.

ISTRIPUA ▶



Auto ilarak N-1 errepidean, kamioi istripu baten ondorioz

Atzo goizean auto ilara luzeak eragin zituen istripua gertatu zen N-1 errepidean, Tolosa parean, Donostiako norabidean. 3 orduz erretail bat itxita egon zen, 10 kilometrotako ilarak sortuz. Kamioi batek izandako istripuaren ondorioz jazo zen gertakaria. Tolosako hiriguneko trafikoa ohi baino mantsuagoa izan zen. N. LATABURU

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

GIZARTEA ▶

IMANOL GARCIA

Afrika Elkartasuna taldea zenbait senar-emaztek eta eskualdean aritzen diren hiru apaizek osatzen dute: Joxean Larrañaga (Alkizan, Asteasun eta Villabonan parrokoa), Felix Azurmendi (Berastegin, Berrobin eta El duainen parrokoa eta Gipuzkoako bikario nagusia) eta Jose Ignazio Eguzkiza (Alegialdeko herrietan parrokoa).

Hegoaldeko herrialdeei heziketa mailan laguntzea erabaki zuten. «Lagun baten anaia salesiarra Malin dago, eta erabaki genuen Afrika aukeratzeko behartsuenetakoa delako. Lagun honen bitartez beka batzuk bideratzen ditugu bera dagoen eskolako ikasle batzuntzat», azaldu du Larrañagak. Malirekin elkarlanean, Emmanuel Nestor Kone apaizarekin kontaktatu zuen elkarrekin. San eskualdeko elizbarrutian Caritas-erako bikarioa da. «Esku artean nekazal eskola bat martxan jartzeko proiektua dute, eta guk gonbidatu egin dugu eskualdeko udalerrietan proiektua aurkeztu eta laguntza eskatzeko».

Bost urteren buruan jarri nahi dute martxan nekazal eskola. «Maliko bizimodu nagusia nekazaritza da. Beraz, proiektuaren asmoa lanbide horretan jendea formatzea da, gazteak bertan gelditu daitezten, hona etorri beharrean», dio Larrañagak.

Proiektuaren helburua bertako nekazariak nekazal teknikan hezitzea da: nola landatu, nola erabili dagoen ur eskasa, hazkunde azkarreko eta ekosistemara egokitzen diren espezieak nola erabili... «Nekazaritza eragiten dioen arazo nagusi bat uraren falta da», azaldu du Konek. «Malin hiru hilabetetan bakarrik egiten du euria, eta beste bederatzietan lehortea da nagusi».

Menpekotasuna

Mali munduko herrialde pobreenetakoa da eta ez dauka industriarik. «Funtzionarioei



Ezkerretik hasita, Emanuel Nestor Kone, Maria Jose Labourdique —itzultzaile lanetan aritu zen— eta Joxean Larrañaga, Villabonako elizaren atarian. I.GARCIA

Gazte afrikarrek beren etorkizuna eraikitzeke

Maliko Emmanuel Nestor Kone apaiza eskualdean izan da Afrika Elkartasuna elkarteak gonbidatuta

ordaintzeko kanpotik jasotako maileguak behar dira», dio Konek. Estatuak jasotzen duen diru bakarra inportazioen tasak dira, baina askotan nekazari ezin dituzte tasa horiek ordaindu. «Poliziak nekazariengan joaten dira tasak kobratzeko». Menpekotasun handia dago atzerriarekiko: «Nekazariak lortzen duten janariak aparte, beste guztia inportatzen da», laburtzen du apaiz maliarrak.

Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko ezberdinta-

sun handi bat naturan dago: Maliko zati handi bat basamortua da, 45 gradutara iristen da temperatura eta euri gutxi egiten du. Ezberdintasun fisiko horrek kultura ezberdintasuna sortzen du. «Han euria egiten duenean eguraldi ona da», dio Konek eguraldiak eta naturak gizakiaren ulertzeko moduan duen eragina azaltzeko. «Hiru mende atzetik goaz garapenari dagokionez», zehaztu du Maliko apaizak. «Etxeak lurrez egiten dira, ez dago errepiderik, edozein joan-etorri milaka ki-

lometro oinez egitea suposatzen du —emakumeek, adibidez, 5.000 kilometro inguru egiten dituzte urtero oinez ura jasotzeko—, ez dago argirik, ez dago telefonorik, ez dago eskolarik leku askotan...», gaineratu du bere herrialdeko egoera deskribatzerakoan.

Konek ez du uste Iparraldeko herrialdeek erantzukizun aktiboa dutenik Hegoaldeko herrialdeen txirotasunean, baina bai erantzukizun moralak: «Giza-familia guztiak erantzukizuna du gehiegikeriak ez egi-

teko gure aberastasunekin besteen pobrezia ikusita. Izan behar dugu erantzukizun moralak daukaguna partekatzeko. Gizaki guztiok eskubide berak ditugu».

Egun aho guztietan dagoen immigrazioaren gaia ere mintzagi izan zuen Konek: «Lanpostuak sortzea da proiektuaren helburuetako bat, batez ere gazteek jateko aukera izan dezaten, eta hobetzeko aukera izan dezaten. Gazteak herrietan gelditzeko aukera izan dezaten nahi dugu, herriak garatzen joan ditezten, gazteek herriak garatzeko gogoia izan dezaten eta ez emigratzeko».

Gazte asko ez dira eskoletara joan edo ikasketak utzi behar izaten dituzte, baina normalean ikasi nahi dute. Maliko emigratzaile gehienak Senegalen ondoan dagoen eskualdekoak dira. Frantziara joan direnak izan dira zonalde horretarakoak. Dirua egin, bueltatu eta maila oneko etxeak erosten dituzte. «Hori ikusita, gazteek eskola uzten dute emigratzeko», azaltzen du Konek. «Eskualde horretako familien pentsamondean oso barneratuta dago kide batek atzerriara joan beharra duela gero familiari dirua bidaltzeko».

Esan bezala, Afrika Elkartasuna elkarteak kideekin izan da Kone eskualdeko udalari bisita egiten proiektua aurkezteko. «600.000 euroko kostua baino gehiago aurreikusten dute nekazari eskola martxan jartzeko. Kopuru handia da hori Udalek bere gain hartzeko. Gure asmoa izan da hirubost urtetarako diru kopuru batekin konpromisoa hartzea», azaltzen du Larrañagak. Akordio zehatzik ez dute lortu, baina espero dute diru laguntzaren bat jasotzea.

Afrika Elkartasunak elkarteak kontu zenbaki bat dauka proiektuari laguntza eman nahi duen guztientzat: 2101 0003 01 0120565270, hain zuzen ere. Proiektuari edo elkarteari berari buruz informazio gehiago nahi duenak 667 51 84 36 telefono zenbakira dei dezake.



Udaltalde 21 Ernioaldea

Herri Batzarrak ospatuko ditu datozen hilabeteetan herritar guztiak, Tokiko Agenda 21aren bitartez, parte har dezagun gure herriaren etorkizunean. Parte hartu ezazu. Zer esanik baduzu!!!

1.HERRI BATZARRAREN TOKIAK ETA DATAK

Aduna: azaroak 23an, udaletxean, 20:30ean

Anoeta: azaroak 29an, udaletxean, 19:30ean

Asteasu: azaroak 10ean, udaletxean, 19:30ean

Irura: azaroak 24an, udaletxean, 19:30ean

Hernalde: azaroan zehar bilduko da

Villabona: abenduak 1ean, udaletxean, 19:30ean

Zizurkil: azaroak 17an ordua eta lekua zehaztear dago

PARTAIDEAK:



ALEGIA ▶ HIRIGINTZA

Autoek baimena beharko dute San Joan kalean sartzeko

Kalearen hirigintza proiektua prest dago; 2.155.500 euro beharko ditu Udalak

MARTA SAN SEBASTIAN

Alegiako San Joan kaleko berrikuntza lanak hastear dira dagoeneko. Proiektua prest dago, eta lanak egiteko aurrekontua 2.155.500 eurokoa da. 2003. urteaz geroztik hainbat batzar egin dira udaletxean herritarren iritzia jasotzeko; eta, herri kontsultak egin ondoren, San Joan kalea hirirtartzeko proiektua egitea erabaki du Udalak.

Obraren helburua autoentzatzat zein oinezkoentzatzat izango den gunea sortzea da. Autoentzatzat joan-etorria baimendua egongo da garajeetan autoak sartzeko, dendetako zamalantarako eta larrialdi zerbitzuertarako. Hala ere, baimen hori uanean unekoa izango da, eta Udalean eskuratu beharko da. Obrak izango duen beste ardatzetako bat San Joan kaleko azpiegitura zerbitzuak berritzea da. Gasaren hornidura sarea

bermatzeko instalazioak egitea, Euskaltel zerbitzuaren instalazioa edota Udalak egin ditzakeen bestelako kanalizazioak erraztea izango du xede. Horretarako, zutoin teleskopiko automatikoak nahiz finkoak jarriko dituzte Udalak zehaztutuen hiru puntutan. Baimena ez duten autoei sarrera galarriziko diete horrela.

Ez dute oraindik zehaztu hirigintza lanak noiz hasiko diren, baina Udalak «ahal bezain laster» hasi nahi du. Kaleak duen berritze premia dela eta, beharrezkotzat jotzen dute lanak berehala hastea. Kaleko lurzoruaren egungo egoera kaskarra da. Izan ere, breazko harlauzaz egina dago eta, batez ere, ermita inguruan denboraren poderioz dezente hondatu da.

Bi fasetan banatu du proiektua Udalak Raimundo Mendiburu arkitektoarekin eta Endara Ingeniari Elkartearekin bat

eginda. Fase horietako bakoitza burutzeko aurreikusi duten epea sei hilabetekoa da.

Proiektuan zehaztutakoaren arabera, Erretore Etxearen ondoan dagoen berdegunea txukunduko dute eta, honez gain, beste irla berde bat egitea ere pentsatu dute, San Joan kalearen ipar-ekialdeko sarbidean. Gainera, ermita inguruan ere banku berriak jarriko dituzte, baina ez beste inon.

San Joan kalean sarbidea izateko txartela eskuratu nahi duten bizilagun zein dendariak Udalera joan behar dute. Kasuan kasuko tasa ordaindu beharko da, eta ordutegia errespetatzea behartuko dute.



Auto asko ibiltzen da kalean. o. e.

ALEGIA ▶

Gaur Ordiziako Santa Ana abesbatzaren emanaldia

Joan Bataiatzaile Deunaren elizan izango da saioa, 19:45ean

M. SAN SEBASTIAN

Jakina da Alegian herritarrek abesbatzen inguruan duten zaletasuna. Bada, zoriarekin dira gaurkoan. Izan ere, iluntzean saio berezia izango da Alegiako Joan Bataiatzaile Deunaren elizan. Ordiziako Santa Ana abesbatzak emanaldia eskainiko du, 19:45ean. Alegiako Txintzarri abesbatzak ere sarritan kantatu izan du eliza horretan, akustika aldetik emaitza onak eman ohi duelako.

ENKARGUETARAKO

tolosaldeko mutil bat behar da, urria, azaroa eta abenduan

Interesatuak deitu 685 730 204 telefono zenbakira



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Jon Zabaleta
Manuel. Memoria

Ganbaran
Urriak 20 - Urtarrilak 7

Raul Urrutikoetxea.
Joan etorria

Rosa Brun

Erakustaretoan
Urriak 27 - Urtarrilak 7

ORDUTEGIA
astartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita

IBARRA ▶ KULTURA

Babarrun jatea egingo dute bihar Hauspoak antolatuta

12:00etan erakustaldi berezia izango da, eta 14:30ean bazkaria

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar ohikoa den babarrun jatea egingo dute Ibarako San Bartolome plazan Hauspoak antolatuta, 14:30etik aurrera. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu kultur elkarteak «herria girotzeko», eta biharkoa ere helburu horrekin egingo dute.

10:00ak inguruan hasiko dira lanean sukaldariak dena prest egon dadin bazkal ordu-rako, baina Hauspoatik azaldu dutenez, «dena ez da tripa-festa izango», alegia, ez dira jateko soilik bilduko; izan ere, 12:00etan erakustaldi berezia izango da ikusgai Ibarako plazan. Batetik, odolkiak eta txori-

zoak nola egiten dituzten ikusteko aukera izango da, horretan jardungo baitute herriko harakin batzuk; eta, bestetik, urdaiazpikoa nola xerratu behar den erakutsiko du beste harakin batek, eta jateko aukera ere izango da, euro pare baten truke.

Bestalde, bazkarirako txartelak Ibarako tabernetan edo elkarteetan eskatuta lortu ahal izango dira, helduentzat 12 euroren truke eta haurrentzat 3 euroren truke. Hauspoa elkar-teak gonbita luzatzen die herri-tar guztiei bihar herriko plazara azaldu, erakustaldi berezia ikusi eta «babarrun eder» batzuen bueltan egun-pasa polita igarotzeko.



Hauspoak antolatutako iazko babarrun festa. HITZA

IBARRA ▶ FUTBOLA

Carnicerias Saenz-en aurkako gaur Ibarak

18:30ean jokatuko dute Belabietan; jubenilak Sestaoren aurka ariko dira

ERREDAKZIOA

Gaur 18:30ean izango du norgehiagoka Ibarra areto futbol taldeak Belabietan kiroldegian Gasteizko Carnicerias Saenz taldearen aurka.

Gasteiztarrek 5 partida galdu dituzte eta 1 baino ez dute irabazi, denera 3 puntu batuz. Ibarakoak egoera lasaigoan aurkitzen dira, izan ere, azken partidak irabazi ondoren sailkapenaren erdialdean kokaturik daude. Aipatzekoa da

Ibarakoen Lander jokalaria zalantza izango dela gaurko partidarako, eta azken unerarte ezin izango duela jakin Cesar Roca entrenatzaileak jokatzeko gai den ala ez.

Jubenilen taldeak, berriz, 17:50ean jokatuko du partida Sestaoren aurka, hango Benedicta kiroldegian.

Bestalde, Ibarak gogoan izan nahi du taldeko jarraitzaile sutsua den *Pilili*, lan istripua izan baitu, eta gaurkoa hari eskainiko diotela azaldu dute.

IBARRA ▶ BELA

Xabi Fernandez, Mundu Birari ekiteko prest

Movistar ontzian ariko da; gaur hasiko da bira, eta zazpi regata izango dira guztira

I. TERRADILLOS

Denera, zazpi dira gaur hasiko den Volvo Ocean Race 2005-06 Munduko Biran parte hartuko duten ontziak, eta horien artean Xabi Fernandez kide duen Movistar taldekoen ontzia. Ibartarrarekin batera, besteak beste, Iker Martinez ariko da, Olinpiar Jokoetan eta Munduko Txapelketan 49er modalitatean txapelduen gertatu zen bikotea, beraz; eta hauen zuzendaritzapean eta

gidaritzapean Pedro Campos eta Bouwe Bekking.

Gaurkoan, atariko etapa egingo dute; 40 mila izango ditu, eta irteera eta helmuga Sangenjoko (Galizia, Espainia) portuan izango ditu. Espainiako Movistar taldeaz gain beste 6 ariko dira: ABN Amro I holandarra, ABN Amro II holandarra, Brazil 1 brasildarra, Ericsson Racing Team suediarra, Pirates of Caribbean estatubatuarra eta Premier Challenge australiarra.

BERROBI ▶

Frontenis Txapelketarako izen-ematea

Azaroaren 19an hasiko da Berrobin XIV. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. Izena emateko Berrobiko udaletxera (09:00etatik 14:00etara), Iturriza janaridendarra eta Iriarte jatetxera, eta Tolosa eta Donostiako Aralar Kirolak dendetara jo beharko da, eta bikoteko 10 euro eta banaka 5 ordaindu beharko dira. Izena emateko azken eguna, hilaren 10a.

OREXA ▶

Gaur amaituko da Kultur Hamabostaldia

Kultur Hamabostaldiarekin amaitzeko gaur, 16:30ean, Korri, Xalto eta Brinko pailazoaren ikuskizuna izango da, eta ondoren haurrentzat askaria; 21:00etan herri afaria egingo dute, eta ondoren DJ Bull-ekin erromeriaz gozatu ahal izango dute.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gemikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ **Renfe:** 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 **Leaburu**



Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2. Bista zoragarriak.

Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibiltokian. Bista zoragarriak, sartzeko moduan.

Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian

Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan. Guztin berriua, 244.000 euro

Salgai (Tolosa). Pisua San Franziskon, 126m2. Garajearekin.

Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Baxiller Zakiobia kalean, Plaza zaharra...

Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidetan...

943 65 17 13 / 677 46 09 16

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Egin berri dute Tolosan Ilarramendi pilotalekua dagoen eremuan eraikiko diren babestutako 44 ebexbitzen zozketa. Nola ikusten duzu ebexbitzen gaur egungo egoera gure eskualdean? Animatu eta eman zure iritzia eskualdeko egunkariaren web orrian.

GIZARTEA ▶

Ikastetxeetan greba egin dute, 'Kotto' gogoan

Sakabanaketa salatuz, manifestaldiak egin dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleek



Amazabaleko ikasleek herriko kaleak zeharkatu zituzten. J. ASTIBIA



Solidarioak joan ziren buruan Tolosako manifestazioan. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Astelehenean hil zen «Kotto Alzugurenen heriotza salatze eta EPPen sakabanaketa bukatzeko eskatuz» hezkuntzan deituta zegoen greba egunari jarraiki, eskualdeko ikastetxeetan ikasleak eskolatik atera ziren.

Horrela, Leitzako Amazabal Institutuan 11:00etatik aurrera egin zuten greba DBHko eta Batxilergoko ikasleek, eta ikastetxe ataritik aterata, manifestazioa egin zuten herrian barrena.

Tolosan ere eguerdi aldera egin zuten manifestazioa, Soli-

darioek zeramatzen xingola beltzduin ikurrinaren eta euskal presoen Euskal Herriratzearen aldeko ikurren atzetik, *PSOE hiltzaile, gazteria kalera* zioen pankarta buru zutela. Herriko Alde Zaharrean barrera ibili ziren. Ibilbidean zeharreko martxa «normaltasunez» joan bazen ere, «bukatzerakoan, ordea, paisanoz zihoozen bi polizia agertu dira eta solidarioak identifikatu eta 20 minutu ingurutan ormairen kontra eduki dituzte», adierazi zioten Htzari antolatzailerak; «isunak iritsiko zaizkiela» ere jakinarazi zieten ere azaldu zuten.

iragarki laburrak ▶

LANA

Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Telefonoa: 656 41 68 08.

Psikomotrizista. Amezketako Guraso Elkarteak psikomotrizista behar du. Interesatuek deitu 665 70 17 80 telefonora.

ESKAINZA

Exteko lanetarako. Emakumea eskaintzen da eteko lanak egin edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldetan. Telefono zenbakia: 660 15 25 42.

SALGAI

Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. 615 75 57 62 (arratsaldetan).

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶



Erdi-erdian dauden Amaia Agirrerekin eta Jexux Mari Irazurekin batera ariko direnak hauexek dira, ezkerretik hasita: Unai Iturriaga, Jokin Uranga, Jon Martin eta Fredi Paia. BERTSOZALE ELKARTEA

Agirre eta Irazu pasea lortzeko lehian aritzeko prest dira

Bertsolari Txapelketa Nagusiko aurreneko finalerdietako saioa dute bihar bertan Hendaiako Beltzenia pilotalekuan

JAIONE ASTIBIA

Amaia Agirre billabonatarrek eta Jexux Mari Irazu larrauldarrak bihar dute Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurreko lehen itzuliko saioa: Hendaiako Beltzenia pilotalekuan. 17:00-etatik aurrera. Abenduaren 18ko finalean Egafiarekin eta Lujanbiorekin batera lehiatuko diren sei bertsolariak saio hauetatik aterako dira.

18 bertsolarik, 6 finalaurreko jaialditan banatuta, bina saio egin beharko dituzte. Orotara, punturik gehien eskuratzeko dituzten seirak joan dira BECen jokatu den final handira. 18 hauetatik sei, zuzenean sartu dira finalaurreko faserara, aurreko Txapelketa Nagusiko finaleko saioan parte

hartu zutelako. Hauen artean da Irazu bera —Iruan bizi den Aitor Mendiluze ere bai; baina honek lehen saioa hurrengo igandean du—. Aurtengoarekin hirugarren aldiz parte hartuko du Larraulgo bertsolariak Txapelketa Nagusian. Aipatzen da aurreko bietan finalean hor izan dela lan polit askoa eginez; 1997koan, Kartzelako Saioan *Habanera* doinuarekin botatako bertsoak gogoratzea aski, horretaz konturatzen. «Azken boladan bertsolaritzari denbora gehiago eskaintzen» ari dela jakinik, oraingotan ere zer esana emateko prest izanen da, ziur.

Eta beste 12ak kanporaketetan sailkatu dira, tartean Amaia Agirre. Bigarren aldiz parte hartzen ari da Txapelketa Na-

gusian; Lekunberriko saioan onena izanda eskuratu zuen aurrerako pasea billabonatarrek. Berak HITZARI baieztatu zionez, «igandean ilusioarekin plazaratzen saiatuko naiz». Izan ere, haren esanetan, Lekunberrikoaz geroztik ez du deus landu, «oso luze» egiten ari omen zaio txapelketa, «eskolan, etxean... bertsoa burutik ezin kenduz bezala nabil». Finalerako «ezin dut ametsik ere egin», esan zuen, baina bere helburua zein den argi du: «'Bertsotan egiten badaki' entzun nahi diot jendeari, ez dut han egon soilik egin nahi, bertsotan egin egin nahi dut eta jendeari gustagarri izan», argitu zuen.

Batak zein besteak bihar beste aukera izanen dute.

iragarki laburrak ▶

Aireportuak. Bezero arretarako lanpostuak betetzeko premia. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Haur eskola publikoak. Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia, astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik

15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Hurrengo deialdiak: Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Harreragileak. Harreragile-telefonista. Udaletxeetarako plaza libreak. Informa zaitetz 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Sukaldari laguntzaileak. Sukaldari laguntzailea, sukaldariak, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. Informa zaitetz. 943 31 37 82.



AGENDA ▶

KULTUR HAMABOSTALDIA

Orexa. 16:30ean, Korri, Xalto eta Brinko pailazoan *Show berria prestatzen*; ondoren, merienda; 21:00etan, herri afaria; ondoren, DJ Bull.

MUSIKA

Tolosa. Jone eta Petti. 22:30ean, Bonberenean.
Tolosa. Karlos Jimenezen piano kontzertua *12 geltoki* disko berria aurkezteko. 20:00etan, Aranburun.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Goiko Irratia (107 FM)
13:00. *Komerra* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ikastetxean ere elkarbizi

TOLOSA ▶ Herrialde desberdinen arteko elkar ezagutza sustatzeko hainbat ekintza ari dira egiten ikastetxeetan, 'IpuinARTEan I' egitasmoaren baitan

ERREDAKZIOA

Dozenaka asmo eta ekimen biltzen ditu Tolosaldeko Irazki elkarte kulturantzak antolatutako *IpuinARTEan I* proiektuak. Horien artean, egitasmoaren helburuak umeekin lantzea.

Hala, Tolosako ikastetxeetan hainbat gai jorratu dituzte egunotan, guztiak «elkar ezagutu eta elkarbizitzeko gogoarekin»: *Beste kultura batzuk ulertzeko modua eta aurretiko jarra* izeneko galdetegia landu, munduko musikak, jolasak eta ipuinak ezagutzeko tartea, ikastetxeetan dauden etorkinek beren hizkuntzetan zerbait idatzi eta denen begi bistan

utzi... Besteak beste, Samaniego ikastetxean Mantto maskota «irakasleek eta ikasleek ekarritako kultur ezberdinetako adierazgarriekin» jantzi dute, «euskalduna izateaz gain, beste herrialdeetako kulturetara irekia dagoelako». Megafoniaz, jartzen ohi dituzten euskarazko kantuen ordez, herrialde ezberdinetako doinuak jarri dituzte. Eta irakasleek eta gurasoek diapositiba emanaldiak eskaini dituzte, esaterako, Saharari eta Kolonbiari buruz.

Erakusketa, «pizgarri»

Aranburu Jauregian mundu osoko 36 artisten lanekin ikusgai dagoen erakusketa ere bisitatu dute Tolosako ikastetxeetako ikasleek eta irakasleek. Eta pozik dira ikusitakoarekin eta ikasitakoarekin. «Erakusketa oso-oso erakargarria izan da, eta gaia beste modu batez lantzeko aukera eman digu. Beste kulturenganako errespetoa eta jakinmina etengabe landu beharreko zerbait dela iruditzen bazaigu ere, pizgarri ona izan da. Eskertzekoa, benetan».



Hirukide ikastetxeko haurrak, Aranburu Jauregiko erakusketan, Sükrü Karakus artistaren azalpenak entzuten. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Maria Mujika.
Zorionak ebekoen eta Migelen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argozkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

SEGA APUSTUR ZIZURKIL
ALEJANDRO IV
Azaroak 5
Joxe Arregi plazan
Equerdiko 12:00tan

Hire koadrila!



Samaniego ikastetxeko txikiak, mundu osoko jantziekin dotore-dotore apaindutako Mantto maskotaren inguruan. HITZA